


# **HERNANI ETA NAFAR ERRESUMAREN KONKISTAK (1200 - 1512)**

*HERNANI Y  
LAS CONQUISTAS DEL REINO DE NAVARRA*



**Egileak:** Hernaniko Udai Artxiboa (Jesus Mari Gomez)  
Hernani Errotzen Memoria Historikoa Elkarte Kulturala (Beñi Agirre).

**Itzulpenak:** Malores Etxeberria, Jon Odriozola eta Dobera (Nagore Zubeldia)

**Azala:** Amaiurko gaztelua (arg.: Jesus Mari Gomez)

**Antolatzailea:** *San Joan konpartsa (2012ko ekainaren 27a)*

# Hernani eta Nafar Erresumaren konkistak (1200 / 1512)

Negu ostean... ernatu da zuhaitza<sup>1</sup>.

2012. urtea, Nafarroa Garaiko Erresumaren inbasio eta konkistaren bosgarren mendeurrena oroitzen dugun urtea da. Mendeetan helarazi diguten diskurtsoa desegin eta bertsio ofizialak ezabatu nahi izan duena ezagutzera eman behar dugun urtea da: 1512an jazo genuena konkista bat izan zen, eta ez “bat egite” edota “anexio” baketsua gaztela-espainiar koroarekin.

Egun, 1512ko Nafarroaren konkista zalantzan jartzen dutenak gutxi dira, baina lurraldearentzat onuragarria izan zela esaten dute: *“a raíz de este suceso, se modernizaron distintas estructuras de nuestra tierra, numerosos navarros asumieron responsabilidades en la Corte, participaron en la gran aventura americana donde destacaron como conquistadores, misioneros, gobernadores, militares, comerciantes...”*. Konkista hartako alde “positiboa” defendatzen dute, hau da, Gaztelarekiko batasun juridikoa eta bere bat egite politikoa monarkia espainiarrarekin.

Manipulazio honen aurrean benetako memoria historikoa berreskuratu behar dugu, gertaturiko errealitatearen isiatasunari aurre egin behar diogu, eta orain bost mende jazo zenaren inguruko benetako bertsioa eskaini. Ez zen anexio edota eransketa izan koroa gazteiar-espainiarrera, kolonizazio eta lurraldearen akuitualizazioa suposatu zuen konkista militar bat baizik, eta bide batez, Nafarroako Erreinuko subiranotasuna, independentzia eta nortasunaren galera ekarri zuen.



*“Don Carlos por la divina clemencia Emperador / senper augusto, rei de Alemania, doña Jhoana / su madre, y el mismo don Carlos por la gracia de Dios / reies de Castilla, ... de Navarra, ... señores de Vizcaya... Por quanto por parte de vos el conçejo, justiçia, / regidores de la villa de Hernani, nos fue hecha relaçion / por vuestra petiçion diciendo que bien sabíamos cómo el año / que pasó de mill e quinientos y doze años, esa dicha villa fue / quemada y robada y destruya por el egerçito del rey / de Françia, y en el dicho tiempo se avian quemado y perdido / las ordenanças que ese dicha villa tenia confirmadas por / los Reyes Catolicos...”*<sup>2</sup>.

Valladolid, 1512ko abenduaren 12a. Udalbatzak eskatu ondoren, Carlos I.ak (Alemaniako Carlos V.ak) Hernaniko hiribilduari udal-ordenantza berriak ematen dizkio<sup>3</sup> (Udal-agiritegian dauden zaharrenak). Errege Katolikoek egiaztatutako jatorrizkoak *con ocasión del saqueo e incendio padecidos por la villa cuando entró en ella el ejército “francés” en 1512* galdu baitziren.

1 Nestor Bazterretxeak Nafarroa Bizirik 1512-2012 plataformarentzat eginiko grabatuaren titulua, plataformaren ikur-harria dena.

2 HUA / AMH // A-6-1/1. Ordenanzas originales otorgadas por Carlos I a la villa de Hernani. En su exposición se hace notar que las primitivas ordenanzas municipales, confirmadas por los Reyes Católicos, se perdieron con ocasión del saqueo e incendio padecidos por la villa cuando entró en ella el ejército francés en 1512. Valladolid, 12 diciembre 1542.

3 Aurretik, 1332an, Hernanik galdu zuen bere “hiri-gutuna” edo fundazioko “forua”; Ahaide Nagusien arteko liskarren testuinguruan zehazki, bertan “Oinatz bandoko jendea” babestu zirenean. Horreia adierazi zuten herriko ordezkariak 1491eko Gipuzkoako Batzar Nagusietan, gainera herria erre eta erabat suntsitua izan zenaren berri eman zuten.

Baina, nortzuk izan ziren benetan 1512an Hernaniko hiribildua arpilatu eta su eman ziotenak? Armada "frantziarra"? Ez al da adierazpen hau, Nafarroako Erresuma konkistatu ondoren, bere izatea ezabatu eta Gaztelako etsaia "frantziarra" soil-soilik izan zela esateko ahalegin bat?

Udal-agiritegiko beste agiri batean<sup>4</sup> **Noaingo Batailaren** (1521) erreferentziak aurkitu ditugu; hernaniarrek, eta hiribilduak ere, parte hartu zuten bertan. Dokumentuko zenbait pasartetan zera irakurri daiteke: "... para los peones que fueron al Reyno de Navarra quando la batalla de Noain diez ducados navarros" edota "... para la gente que fue al Reyno de Navarra quando la batalla de Noain veynte ducados navarros...".

Nafar Erresumaren konkista gertatu eta hamabi urteren buruan, 1524an, oraindik ere hiribilduko agintariek **Noaingo batailara** joan ziren hernaniarrez mintzatzen jarraitzen dute. Nahiz eta Fernando Katolikoak, Gipuzkoako Batzarrei, bere inbasio eta konkistarako babes eskatu..., eta historikoki kontrakoa esan zaigun arren, galdera bat dugu erantzun gabe: hernaniarrek ez al zuten parte hartu Erreinuaren defentsan? Erreinuaren berreskuratze ahaleginean, alegia?

**Hau eta beste galdera asko plazaratu dira Nafarroako Erresumaren memoria historikoaren ikerkuntza benetako, egiazko eta ez, manipulatu edo itxuragabetzearen baitan.**

*"En la villa de Hernani que es en la prouincia de Eguipuzco (sic) dice que / ella y sus vecinos tienen hechos muchos y muy particulares seruicios / a Vuestra Magestad y a los señores reyes sus predecesores en defenssa de la yglesia / y de su Real Corona siendo plaza de armas de la dicha prouincia en todas / las ocassiones que se an ofrecido y **frontera de Francia y aun de Nauarra / mientras se yncorporo aquella de en esta de Vuestra Magestad y en particular el año de / 1512 quando entro el exercito de Francia en los reinos de Nauarra** y dicha / probincia de Eguipuzcoa (sic) acudio con toda su gente a su defenssa por / cuya caussa fue saqueada y quemada en dicha ocasion... por hauer perdido mucha gente / en las dichas ocassiones y reduciendose a pobreza la villa y todos sus / vecinos por hauer echo los dichos serbicios a su costa de 132 años / a esta parte sin los ynnumerables que tiene echos desde la perdi(da) / de Espana en el **discursso de 900 años de esta parte**... en su resturacion no sola/mente acudien(do a l)as conquistas sino a la defenssa de que otras / nazioni es no esntrassen a ganar la parte que los chistianos pos(e)/yan como fueron **quando Carlomano entra en ella / y el de 1321 quando fue derrotado Don Ponce de Morentain en / la tierra de Beotibas** veniendo a ganar la dicha probincia con / exercito de 60.000 hombres ynbiado por el rey Carlos de / Francia"<sup>5</sup>.*

4 HUA / AMH // C-5-IV-1/2. Razón de ingresos obtenidos por la venta de montazgos (pago por transito de ganados) situados en los partidos de Epelsaeza y Aparrain, 1524 – 1527. Idazpen desberdineko enuntziatuetan Noaingo Gudari buruzko erreferentziak irakurtzen dira,... 1512ko pasartearen ondoren hiribilduaren berreraikitzean aurre egiteko, Hernanik, zeuzkan ondare-ondasunetako asko batez ere, Urumeako haraneko mendietan zeuzkanak. salgai atera eta almoneda publikoan jarri behar izan zituen.

5 HUA / AMH // E-4-II-2/3. Documentos referentes al Patronato de la Iglesia Parroquial de Hernani y a las gestiones realizadas por la villa para ser favorecida con la merced del mismo, que dieron por resultado le fuese otorgado por el término de doce años... En los memoriales elevados para apoyar esas pretensiones, se hace relación de los servicios prestados a S.M. por la villa en diferentes ocasiones..., 1600-1800.



XVII. mende erdialdeko agiri honetan, zehatz-mehatz 1644. urtekoa da, hiribilduak, Berorren Maiestatearen eskutik eizaren patronatuaren "saria" jaso asmoz, eginiko zerbitzuen zerrendaren aipamena egiten da: *a Vuestra Magestad y a los señores reyes sus predecesores...*

900 urte atzera eginez gero Orreagako Gudaz hitz egiten ari dela ondorioztatu dezakegu. 778ko abuztuaren 15ean, baskoiek, Karlomagnoren gudarostearen atzeguardia, Ibañetako gainean garaitu zuten; bertan, agiriaren arabera, baskoi hernaniarrek parte hartu zuten.

Halere, aipaturiko dokumentua idatzia izan zen testuingurua aintzat hartu behar dugu, 1650 urtearen inguruan, hiribilduko parrokiako elizaren patronatuaren saria eskatzen zaio Espainiako erregeari. Ikerketatik, baina zorrotasun historikorik gabe, nahiz eta anakronismoz jositako agiri bat izan, gaur esan genezake XVII. mendeko hernaniarrak (Hiribilduko udalbatza erregidorea XVII. mende erdialdera) 778an Orreagan gertaturiko jazoeraren jakinaren gainean zeudela; jakin bazekitela 1321ean Beotibarren gertaturikoak... eta noski, 1512koak ere "*quando entro el exercito de Francia en los reinos de Navarra*".

**Hauek dira Udal-agiritegian 778 eta 1512 urteetan zehar Nafarroako Erresumaren konkista ahalegin eta konkisten inguruan gordetzen diren zenbait agiri. Baina aurrerago ikusiko dugun bezala, ez dira Hernanik (*Ernani* hiribilduak) historikoki Nafarroako Erreinuarekin izan zituen harremanen berri ematen diguten bakarrak.**

## **Nafar Erresumaren historia**

**Historiaurrea.** Baskoien habitat izango zen lurraldean, Paieolitikotik Neolitikorako trantsizioa, eta Brontze Arorakoa, mantsoa eta pitinkakoa izan zen; Gure Aroa baino 5000-1000 urte artean, Burdin Aroa hasten den unean, aldi zeltikoan alegia, Paleolitikoko ehiztari eta biltzaile berberak izango dira nekazari eta abeltzain bihurtzen direnak.

Biztanle haien kultura, gero baskoi gisa izendatuak izango direnak, egun Indoeuropearra esaten zaio; beraien hizkuntza ere, euskara, inbasio zeltikoen osteko zibilizazio desagertu hartatik bizirik irten zen, eta baita ondorengo zibilizazio greziar eta erromatar klasikoen garapenetik ere.

**Erromanizazioa: baskoiak historian sartzen dira.** Zenbait geografo erromatarrek (Plinio, Estrabon, Ptolomeo, etab.) baskoiak aipatzen dituzten euren lurraldeen mugetan eta beraien lurralde eta hiriak aurkezten dituztenean: Novempopulania (Akitania), Oiasso (Oiartzun / Irun), Iacca (Jaca), Graccurris (Alfaro), Kalagorina (Kalagorri)... Erromatar eta baskoien arteko lehen harremanak K. A II. mendekoak dira (gure Aroa baino 179 urtean, Graccurris, Alfaro, sortu zuten) nahiz eta 79. urtean, aurreko jatorrizko kokaleku batean gainean: Iruñea, Pompeiok Pompaelo (Pamplona) sortu.

*Civitas* erromatar berria populazio batasun autonomo bat bezala aurkezten da, non aurrerapenak egiten joan ziren: teknologia berrien ezarpenarekin, esaterako, goldea, mahatsaren eta olioaren ekoizpenarekin..., laborantzari ekin zitzaion. Pompaelon, Oiasson... aurkituriko aztarna arkeologikoek gizarteratze kulturalaren maila erakusten dute eta, kasu askotan, bertoko bizilagunentzat erromatar aldiak oparotasun ekonomikoa ekarri zuen (galtzaden eraikuntza, merkataritzaren garapena...).

Honekin guztiarekin, erreferentzia asko falta badira ere, beste talde etnikoekin alderatuz, bi kulturen arteko bizikidetasuna, baketsua izan zela ondorioztatu dezakegu.

**Bisigodoak.** Urte ilunak dira historiarentzat urriak baitira garai honetatik heldu zaizkigun erreferentzia arkeologiko eta dokumentalak, gure Aroko V. mendean Erromatar Inperioko krisiaren osteko botere-hutsaldiaren ondorioz. Zenbait historiagilek, bisigodoek, garai bateko lurralde hispano-erromatarren lurralde batasuna lortzeko asmoz, inoiz ez zituzten baskoiak azpiratu. Hauek, bestalde, dinamismo handia azaldu zuten lurraldearen erromanizazioaren garapenaren ondorioz.

Hala ere, Iruñea eliza bisigodoaren apezpiku-egoitza izan zen, eta Iruñea zaharrean nekropoli bisigodoak egon izanaren testimonioak aurkitu zituzten.

620. urtean (824ra arte), Pirinioetako iparraldera, Inperio karolinjioaren babesean, Baskoniako Dukerria sortu zen; mendikatearen hegoalderantz, Iruñeko hiriaren inguruan berrantolatzen da lurraldea.

**Inbasio musulmana.** 711an musulmanak Iberiar Penintsulara iritsi eta bi urtera, 713-714ko neguan, hauek Casio Kondeak gobernaturiko Ebroko bailara erdira iritsi ziren. "Inbaditzaileek" hirigintzan, saneamenduan, medikuntzan... zituzten garapen eta aurrerapenak erakarririk, eta eskualdean zuen botereari eutsi asmoz, Casiok ados jartzeaz gain Isiamarekin bat egin zuen; era honetan jarri zen martxan **Banu Qasi** leinua. Jatorri baskoia zuten bertako jaun erromanizatuak ziren<sup>6</sup>. Ebroko arroan gobernatu zuten, hau da, Kordobako Kaliferriaren iparraldeko muga jarri zen lekuan; Kalagorri euren botere gunea izan zen, eta beraien eragina Zaragozaraino heldu zen. Tuteraren sortzaileak izan ziren.

Nahiz eta Iruñeak bertako agintariei eutsi, musulmanak, antza, hirira iritsi ziren (718. urtean). Hiriak, bere sailak, ohitura juridikoak, kulturalak, erlijiosoak, etab. eusteko Kordobako gobernadoreri zergak ordaindu behar izan zizkion.

Pirinioak, oro har, eta lurralde baskoia bereziki, joan-etorriko eta liskar leku bihurtu zen iparraldean kokatuak zeuden frankoen (karolinjioak) eta hegoaldeko musulmanentzat. 732an Poitierseko Batailan musulmanek pairatu zuten porrota (Hunaldo baskoiak parte hartu zuen guda hartan), zonaldeko botere edo ahalmen musulmanaren ahultasunaren hasiera izan zen<sup>7</sup>.

Karlomagnok, Saraqusta (Zaragoza) eskuratzeko helburuarekin hirian sortutako matxinada batez baliatu eta Pirinioak gurutzatu zituen. Bere ejertzitoarekin lurralde baskoitik barrena igaro ondoren Zaragozako atarira iritsi zen. Lurralde kontinentaletan piztutako altxamendu sajoniarraren berri izan orduko Zaragozako ahalegina bertan

<sup>6</sup> Basko jatorrikoak, harreman estuak mantentzen zuten Iruñeko Aritzarekin: 784an Musa ibn Fortún Onnecarekin ezkontzen da, Inigo Jimenez baskoiaren alarguna eta Inigo Iñiguezaren ama, gero Iruñeko lehen Erregea izango zen Inigo Arista o Eneko Aritzaren ama.

<sup>7</sup> Poitierseko 732an porrot hon gorabehera. 734 eta 741 urteak bitartean soldadu-talde militarra mantendu zuten Iruñean.

behera utzi eta atzera egitea erabaki zuen. Erretiradan, Iruñetik igarotzean harresiak txikitu eta hiria arpilatu zuen.

Iruñea atzean utzi orduko, 778ko abuztuaren 15ean Orreagatik barrena Pirinioetatik zihoala, segada baskoi batek (baskoi hernaniarrak tartean<sup>8</sup>) armada karolinjioaren atzeguardia ezustean harrapatu zuten Ibañetako gainetan. **Orreagako Bataila** deritzana da. Gudaroste karolinjioaren atzeguardia garaitua izan zen, eta armada-buru zen Erroldan –Karlomagnoren iloba– borrokan hil zen. Hurrengo mendeetan idatzitako, Chanson de Roland-ek, bataila hilezkortu zuen.

**Erresumaren sorrera.** 824. urtean Eblo eta Aznar kondeak (babes karolinjiopeko aragoarrak) eta Pepinio (errege frankoa, Karlomagnoren biloba) Iruñerantz abiatu ziren, lurralde penintsularrean Regnum Francorum-a ezartzeko azken ahalegina eginez. Huts egin zuten. Franko eta musulmanei aurka egiteko baskoien arteko kolaborazioak, erresuma baskoiaren sendotasuna ekarri zuen, Iruñeko Erresuma. **Iñigo Arista** edo **Eneko Aritza** (824-851) erreinuko lehen subirano izendatu zuten. Aristatarrak, Iruñean finkatuak, beraien boterea sendotu zuten Banu Qasin babesarekin, hauek familiarki ahaidetuak zeuden, Kordobako kaliferriaren iparraldeko mugaren arduradunak ziren.

Iñigo Aritzaren lorpenik handiena Erreinu berriaren sendotzea izan zen; bere eremua Iruñea hiriko ekialde eta mendebaldera zabaldu zuen, zonaldeko monasterioen ingurura arte (Leire<sup>9</sup>, Siesa...).

Iñigo Aritza, **Garcia Inigezek** (851-882) ordezkatu zuen, eta honen ondoren Fortun Gartzes (882-905) etorri zen.

Fortun Gartzesen ostean Antso Gartzes I. (905-925) izan zen Iruñeko Errege. Honekin Jimenar dinastia jarri zen abian eta baita mendebalderantzeko Erresumaren hedapena ere.

900. urte aldera, Banu Qasiren boterea desagertzen joan zen pixkanaka, era honetan lurralde musulmanen (ber)konkista kanpainiei hasiera eman zitzaion: testuinguru honetan, 924. urtean, Abd Al-Arman III.ak Iruñearen aurkako zigor kanpaina martxan jarri zuen.

Antso Gartzes I.aren ondoren, Ximeno Gartzesen (925-931) erregeordetzaren ostean, bere seme Gartzia Sanchez I.ak (931-970) ordezkatu zuen. Eta honen atzetik Antso II. Gartzes Abarka (970-994) eta Gartzia Sanchez II (994-1004) etorri ziren.

Antso Gartzes III.a, Nagusiarekin (1004-1035), Iruñeko Erresumak bere lurralde hedadura handiena lortu zuen.

Naiaran (Najera) ezarri zuen gortea. Erreinuko lehen moneta zizelkatu zuen: bere irudia eta IMPERATOR hitza aurrealdean eta NAIARA atzealdean jarri zion. Santiagorako erromesaldiei esker Jakue Bideko gune bihurtu zen hiria.

8 HUA / AMH / /E-4-II-2/3. "... por hauer echo los dichos servicios... los ynnumerables que tiene echos desde la perdij[da] / de Espana en el discurso de 900 años de esta parte...". Hitz hauekin ondoriozta dezakegu Hernanik, edo hernaniarrek, parte hartu zutela Orreagako Guduan, 778ko abuztuaren 15ean. Gainera, dokumentu hau idazten den testuingurua kontuan hartzen badugu (1644an eta parrokiako elizaren patronatuaren mesedea lortzeko asmoarekin) ezin dugu baieztapen honen egitasuna ondorioztatatu. Erreferentziatutako datuen desitxuratzearen aurrean ("...desde la perdij[da]-a] / de Espana..."; orduan, 778an, ez Espainia, ez Gaztela ez ziren existitzen) ziurta dezakeguna da XVII. mendean hernaniarrek, Hernaniko Udalbatzak, 900 urte lehenagoko gertaeren ezagutza bazutela, eta monarka espainiarraren mesedea lortzeko asmoz "espainolismoz" jantzi zituztela datuak.

9 Leireko monasterioko kriptan hainbat monarka nafar lurperatu zituzten, haien artean Eneko Aritza eta Garcia Inígezek bere semea. IX. mendetik erregeen parteoia, monasterio hau har daiteke monarkia nafar sortu berriaren gune politikoa.





Antso III.a Nagusiaren garaian (1035ean) Iruñeko Erresumaren hedadura.

Hauek dira gaurdaino iritsi zaizkigun garai hartako Hernaniren inguruko lehen aipamen dokumentalak. Hernaniko udal barrutiko lurren erabilera ziurtatzen diguten lekuko materialak ezagutu eta gordetzen baditugu ere Brontze eta Burdin Arotik (megalitikoko Igorik-Akola eta Oindi-Mandoeigiko monumentuak, Gure Aroa baino 2.500 urte lehenagokoak), eta beste ikerketa egin berri batzuek II. mendeko aipamenak egiten badituzte ere<sup>10</sup>, Hernaniren inguruko lehen aipamen historikoak (dokumentalak) XI. mendekoak dira.

Era honetan, Hernaniren lehen erreferentzia duen agiri antzinakoena, historikoki eta zientifikoki egiaztatua, 1014. urtekoa da: Nafarroako errege Antso III. Nagusiak, Leireko monasterioari itsasoaren ertzean eta *Ernaniko* mugetan dagoen Donostiako monasterioa ematen dio (... *in finibus Ernani ad litus maris Monasterium unum, quod dicitur Sancti Sebastiani cum parrochia sua, et illam villam, quam antiqui dicebant, Yzurum...*<sup>11</sup>). Nahiz eta ezagutzen dugun kopia ondorengoa izan, aipaturiko dohaintza 1014ko apirilaren 14/17koa dela ondorioztatu daiteke. Eman izana, 1101. urtean berritu zuen Pedro I.ak, Iruñea-Aragoiko erregeak.

Hernani itsasoraino heltzen zen baieztapenak ("*...in finibus Ernani ad litus maris...*") leku geografiko batekin du zerikusia. Ez dakigu eremuan zegoen populazioa, Ernaniko ibarrean, non kokatu zitekeen; itsasoaren ertzean zegoela dakigu, *monasterio llamado de San Sebastián* inguruan, eta *parroquia* eta *villa*<sup>12</sup> zuen, *Izurun* izena zuena.

*Ernaniko* ibarraren inguruko erreferentzia geografikoa honek, egun bailaretan antolaturiko Gipuzkoaren garai bateko lurraldearen antolaketa historikoa zehazten laguntzen digu<sup>13</sup>; kokalekuak non populazio guneak hasieran eta hiribilduak ostean, kokatzen joan ziren.

10 Analsiak eta C14-probek data jarri diete Urumeako Zilegi-mendietako mugarrietan aurkitutako aztarnei: aztarna horiek II. mendekoak baina zaharragoak dira.

11 "... cerca de Ernani a orillas del mar el monasterio llamado de San Sebastián con su parroquia y villa que los antiguos denominaban Izurun..."

12 Hiribildu hitzak oinarritzko nekazal-populatzetako unitate bat badela adierazten du, eliza baten inguruan antolatutakoa, eta komunak (edo herri-lurrak), larreak, mendiak, e.a. ustatzen dituenak.

13 García de Cortázar eta Ruiz Aguirre azaltzen duten moduan (García de Cortázar y Ruiz Aguirre: Poblamiento y organización social del espacio vasco en la Edad Media. Historia Munduko Euskal Kongresua. Bilbo, 1987.) harana zona izengabe bat da. geografikoa, tokialdatze erregularreko, artzain transhumanteek ibilitako zonak. Ernani-ko haranaz gain, gaurko Gipuzkoako lurralde zaharra itxuratzen zuten beste haran batzuk izango lirateke: Oiarzun, Berastegui, Larraun, Sayaz, Iciar, Iraurgi, Goyaz, Erretzil...



Dokumentu horren aurretik, beste bi agiriaren segurantzia dugu. Fernan Gonzalezen Botoen Abantaila (934 / 939) eta Baionako artzapezpiku-barrutiaren Lurralde eta Eskumeneko Mugaketaren Diploma (Arsius Raca, 980). Bere hasierako aipua alde batera utzi dugu diplomatikoki apokrifo bezala, kronologikoki faltsuak, izendatuak izan baitira.

Bietatik lehenak, 934koa (edota 939an) dela esana, ez da egiazkoa, *Los votos de San Millán* da. Fernan Gonzalez Gaztelako kondeak Kukulako San Millango monjeei dohaintza bat egiten dien agiria: "... *De rivo de Galharraga usque in flumen de Deva, id est tota Vizcaya, et de ipsa Deva, usque ad Sanctum Sebastianum de Hernani id es, tota Ipuzcoa a finibus Alava, usque ad ora maris, quidquid infra est de una quaque alfoze singulos boves...*".

Bigarrena, hau ere oker, 980. urtean datatua (egia esan, XII. mendeko faltsutze bat da) Baionako elizbarrutiaren hegoaldeko mugak zerrendatzen ditu. Ibañetatik gertu dagoen Karlomagnoren Gurutzetik hasi, Pirinioetatik haratago, eta Nafarroa garaiko zenbait ibar besarkatuz, Bidasoako arroa eta gaur egungo Gipuzkoaren zati bat aintzat hartuz: "*Omnis vallis que Cirsia dicitur usque ad Karoli crucem, vallis que dicitur Bigur; vallis que Arberua dicitur; vallis que Ursoxia dicitur; Bastan item vallis usque in medium portum de Belath; vallis de dicitur Lerin, terra que dicitur Ernanía, et Sanctum Sebastianum de Pisicu usque ad Sanctam Mariam de Arosth, et usque Sanctam Trianam...*".

Datak dena delakoak izanik ere, argibideek eremu demografiko bat egiaztatzen dute, *Ernani* bailara. Kronologikoki egiazkoak edo apokrifoak, ziurtatu, eta historikoki dokumentatu dezakegu "...*usque ad Sanctum Sebastianum de Hernani...*" lurrak, Iruñeko erregeen gobernupean zeuden Nafarroakoak zirela; Ipuzcoa bezala aipaturiko lurraldeak Nafarroa zirela. Honetara iritsita, argitu behar dugu, nahiz eta zenbait autorek<sup>14</sup> "*Cuando aparece, pues, Hernani en la Historia de Guipuzcoa...*" adierazi, ez zegoen "...*unida políticamente a Navarra...*"; orduan, XI. mende hasieran, ez zegoen egungo Gipuzkoarik (Gipuzkoako Ermandadea XIV. mende bukaera aldera jaio zen, 1396-1397 urte artean) eta lurralde haiek Nafarroa ziren.

1025. urteko data duen aglri baten arabera, gaur egungo Gipuzkoako lurraldea osatzen duten ibarren lehen aipamen dokumentalak ere XI. mendekoak dira; "*el señor Gacia Acenariz (eta Doña Gaila) de Ispuscua*"<sup>15</sup>k, Olazabalgo San Salvador Eliza, San Juan de la Peñako monasterioari eman zion agiria. Beste agiri bat, honako hau Antso Nagusiarena<sup>15</sup>, hau ere XI. mendekoa, Oria, Urumea eta Oiartzun ibaietako bailarak kantauriar ozeanoko (atlantikoa) Nafarroako monarkiaren luzapen naturala direla dio.

Agiri hau eta beste batzuekin ondorioztatu dezakegu Nafarroako Erresumak eta Nafarroako erregeek izan zuten zeregin nabarmena egungo Gipuzkoa osatzen duten lurraldeen osaketan: San Sebastian monasteriotik, lurraldeko ekonomiaren garapenean, gutxien gutxienez, XI. mendetik lagundu zuten.



Antso III.a Nagusiaren heriotzaren ostean, bere seme maiorazgoak, **Gartzia Sanchez III.ak** (1035-1054) jarauntsi zuen Iruñeko Erresuma; eta beste lurraldeen

14 MURUGARREN, Luis: Hernani, su historia e instituciones. Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, San Sebastián, 1970: "Cuando aparece, pues, Hernani en la Historia, Guipúzcoa estaba unida políticamente a Navarra...".

15 Iruñeko Elizbarrutiko mugen, ondareen eta eskubideen akta.

administrazioa gainerako bere semeek jaso zuten: Fernando, Ramiro eta Gonzalo. Oinordekoek ez zuten aitaren testamentua errespetatu, bakoitza oinordetzan utzi zitzaion lurraldeaz jabetu zen. Honek lurralde ika-mikak eragin zituen: Fernando (1035-1065, Gaztelako Kondea eta errege gaztelaua 1037tik), Ramiro (Aragoako lehen erregea, 1035-1063) eta Gonzalo Sanchez (Sobrarbe eta Ribagorza erregea, 1035-1045). Gartzia Sanchez III.a Atapuerca Batailan hil zen gaztelau eraso bati aurre egiten ari zela. Liskar honen ondorioz Nafarroak bere lurralde mendebaldekoenak galdu zituen: Bureba, Oña... Gaztelak bere inbasio eta hedatze militarren politikari hasera eman zion.

Antso Gartzes IV.a, bere aitaren heriotzaren egun berean, 1054ko irailaren 1ean, errege izendatu zuten. Gaztelarren lurralde gosea, Nafarroako tronuko oinordekoen senideen liskarren jatorria izan ziren, eta egoera honek guztiak 1076ko ekainaren 4an Nafarroako erregearen erailketa eragin zuen. Nafarroako monarkiaren ahulezia baliatuz, Gaztelak, Alfonso VI.a Leon eta Gaztelako erregeak, Errioxa indarrez hartu eta okupatu zuen, eta Najera eta Kalagorri beretu zituen.

Aragoiko errege ere bazen **Antso V. Ramirez** (1076-1094) izan zen Antso Gartzes IV.a ordezkatu zuena. Antso III. Nagusiaren erregealditik, azken urteetan galduriko lurraldeen batasuna berreskuratu zuen; bere gobernutik, eta bere seme **Pedro I. Sanchezenetik** (1094-1104), "ber" konkista eta foruen aldarrikapen kanpainak aurrera jarraitu zuten.

**Alfonso I.a Borrokariaren** erregealdian (1104-1134) erreinu musulmanen aurkako erasoaldi handi bati hasiera eman zitzaion, erreinuaren hedadura handituz; Pirinioetako iparraldean, 1131an, Baiona bereganatu zuen.

Lurralde nafarren bateratze eta hedapen hau, inbasio eta konkista politika gaztelarrak gelditu zuen. Gaztelak, erresumaren mendebaldean zegoen lurraldean, egungo Bizkaian alegia, aliatu garrantzitsu bat zuen: Lopez (de Haro) sendia. Lope Iñiguezek, Gaztelako Alfonso VI. erregeari, 1076an jada gorazarrea egin zion. Ostean, Diego Lopez (1093-1124) ordezkatu zuen, Gaztelaren esku zeuden Bizkaia eta Errioxako jaurren buru izan zen; harrez gero Lopez de Haro izenez ezagutua izan zen leinua<sup>16</sup>.



Bestalde, Aragoiko Konderria, kronika nafarrek jasotzen dutenez Iruñeko Erresumako zati zena, Bartzelonako Kondeek eskuratu nahi zuten haien lurraldearen hedapen natural gisa. Bartzelonako Kondearen presio eta amarruek, Aragoiko Erreinu

Penintsula Iberiarra  
1150. urte inguruan.

16 Nafar Erregeek López (de Haro) familiari emandako titulua (aldi baterakoa, pertsonala eta ezeztagarria, erresuman araua zen bezala) oinordetzako bihurtu zuen Gaztelak.

Bartzelonako Konderrian txertatu zenean amaitu ziren, Bartzelonako Ramon Bereguer IV. eta Petronilaren, Ramiro II.aren alabaren (Alfonso I.a Borrokalariairen anaia) ezkontza adostu orduko.

Alfonso Borrokalariairen heriotzaren ostean, berriz ere, Gaztela eta Aragoiko koroen jazarpena pairatu zuen Nafarroak. Nafarroako tronua Garcia IV. Ramirez Berrezarlearen (1134-1150) esku geratu zen eta erresuma XI. mendeko mugetara itzuli zen berriro. Regnante in Navarra et in Alava et in Bizcaya errege titulua hartu zuen.

**Antso VI.a Jakintsuak** (1150-1194) Erresuma indartu eta sendotu zuten zenbait zuzenbide zein administrazio erreforma bultzatu zituen. *Rex Navarre* edo *navarrorum* titulua hartu zuen. Bere erregealdian zehar, Bizkaia (Durangaldea izan ezik) 1174an, Gaztelako eremura igaro zen behin betirako.

Lurraldeei dagokionean, tirabirei egin behar izan zien aurre: Gaztelak, X. mendetik Errioxako lurraldeekiko zuen ika-mika, adibidez. 1177ko martxoan, monarkia ingelesaren rol arbitrarioa onartu ondoren, Ingalaterrako Henrike II.ak laudo arbitral bat zabaldu zuen: Nafarroak Errioxako lurraldeak galdu zituen eta lurraldeak Gaztelako Koroakoak izatera igaro ziren<sup>17</sup>.

Antso VI.a Jakintsuak, Iruñeko Erreinu zaharraren izendapena, Nafarroako Erreinuaz ordezkatu zuen. Eta euskara nafar guztion hizkuntzatzat jo zuen: *lingua navarrorum*.

Antso VI.arekin, Erreinu estatua moderno bat bezala egituratzen da, Europako beste estatua edo erresumak egiten ari ziren bezala: garapen eta hedapen demografiko eta ekonomikoaren politika ezartzei ekin zion hiri-gutun edo foruak emanez. Antso VI.a herri gehien "sortu" zituen izan zen, bere forua herri gehienei eman ziena: Durangori, Tuterari, Gasteizi, Sonsierrari, Trebiñori,... eta Donostiari.

Genion bezala, Antso VI. Jakintsuaren lorpen handiena egungo Araba eta Gipuzkoako lurraldeetan, bailaretan, biztanleri gune berriak sortzea izan zen, besteak beste, Donostia 1180. urtean.

*"En el nombre de Dios, amen. Esta es la carta de autoridad y confirmación que yo Sancho, por gracia de Dios rey de Navarra, hijo del rey García, hago a todos los hombres tanto mayores como menores, presentes y futuros, que tienen poblado y en adelante han de poblar San Sebastián. Me place de buen grado y espontánea voluntad el daros y concederos a vosotros y a vuestros sucesores buenos y buenas costumbres.*

\*\*\*

*Doy a los pobladores de San Sebastián desde Urdaribia hasta el Oria, de Arrenga hasta San Martín de Arano toda la región que yo poseo dentro de aquel término, y todo lo que allí está sea de realengo..."*<sup>18</sup>.

17 Ingalaterrako Enrique II.ak, Gaztelako Alfonso VIII.ak eta Nafarroako Sancho VI. Jakintsuak errege ingelesaren hautamena onartu ondoren, lurralde-jabetza eta Gaztela eta Nafarroaren arteko mugen inguruan 1177ko martxoaren 16an arbitraje laudo bat eman zuen. Aipaturiko laudoak 1158ko mugak onartzen ditu, hots, Nafarroak Errioxako leku askori uko egin behar zion eta Logroño, Navarrete,... itzuli. Gaztelak, aldiz, beste lurraldeaz gain, gaur egun den La Puebla de Labarka itzuli eta 30.000 marabedi, 10 urtetan, ordaindu behar izango zuen. Bizkalko Jaurerria Diego López de Haro II.aren eskutan zegoenez eta hau Gaztelaren aldekoa zenez, errege nafarrak lehentasuna eman zion Durangaldea eta Araba atxikitzealr. Gaztelak eta Nafarroak gustuko ez zuten laudoa, eta 1177ko uztaileko jada Nafarroaren kontra konspiratzen ari zen errege gaztelarrak. Bi urte geroago, 1179ko martxoan, Cazorlako hitzarmena sinatu zen, Aragoi eta Gaztela artean Nafarroako Erresuma banatzeko edo partitzeko besterik ez zen hitzarmen honen helburua. Mehatxu honek bake-hitzarmen bat sinatzera eraman zuen (1179ko apirilaren 15a), 1177ko martxoko arbitraje-laudoak markatzen zituen mugak onartzen zituena: Errioxa Gaztelarako geratzen zen, Nafarroak Durangaldea, Ipusco, Araba,... mantenduko zituen berriz.

18 Basabe Martín, Alberto: "Fuero de San Sebastián. El texto del fuero. Edición crítica y estudio filológico".



Hau da, Hondarribitik Oriaraino (Ipuscoa eta Hernani arteko muga egiten duen ibaia) eta *Arrengatik* (Errenga izan daiteke, Oiartzun eta Lesaka artean dagoen mendia) *San Martin de Aranora* doazen lurak ematen zizkion Donostia Hiriari.

Hiri gutun edo foru honi esker, Nafarroako Erresumak itsasorantz doan bide berri bat zabaldu zuen (Baionako portua bere esku zegoen jada), Donostia bere itsasaldeko portu garrantzitsuena bihurtuz. Jacatik, Iruñetik edo Gasteiztik heltzen ziren artilea, garia, ardoa... bezalako produktuak Donostiatik barrena Europara esportatzen ziren; kontinentearekin merkataritza erlazioak indartu zituenenez aurrerapauso handia izan zen Erresumarentzat.

**Goi Erdi Aroaren garaian, 1200. urtera arte, egungo “euskal lurraldeen” inguruko agiri guztiek Nafarroako Erresuma dute ardatz; 1200. urtea baino lehenagoko gordetzen diren agiri guztiak, nafarrak dira. Itsasaldeko edo mendebaldeko Nafarroa, nafar lurraldea zen.**

**Nafarroaren zatiketa, Gaztelak eragina. Antso VII. Azkarraren** erreinualdian (1194-1234) Nafar Erresumak lurralde batasuna galtzen hasi zen. Mendebaldeko lurraldea galdu zuen, itsasaldeko Nafarroa: Durangaldea eta gaur egungo Araba eta Gipuzkoaren lurak.

Gasteiz Nafar erresumaren hiririk garrantzizkoenetakoa zen; harresiz inguratua eta Gaztelarekin mugan, Alfonso VIII.aren hurrengo helburua zen Gasteiz hartzea. Ordurako Gaztelak bere menpean zituen Bureba eta Errioxa. Nafar erregea musulmandarren aurkako gudetan zebilela aprobetxatuta, Alfonso VIII.ak Gasteiz inguratu zuen 1199. urteko udaberriaren amaieran. Gasteiz defendatzen zutenek, Martin Ttipia buru zutela, ez zuten amore eman, goseak erabat ahulduta eta euren errege Antso Azkarrak errenditzeko baimena eman zien arte. Errenditzea 1200. urtean gertatu zen, hiriaren kontrako guda hasi eta 9 hilabetera: *“comprendiendo el riesgo inminente de hambre... obtuvo del rey la rendición de Vitoria para Castilla...”*. Gasteizen konkistak eman zion hasiera Nafar erresumaren mendebaldeko lurraldeen konkistari: *“... el rey de Castilla hubido son consejo especialmente entre otros con don Diego de Vizcaya... e así el dicho rey de Castilla corrió toda la tierra de Álava, de Ypuzcoa e de Navarra, ... e como quiera que Victoria tuvieron setiada cerqua de hun ayuno e otras villas e castillos e fizieron todo su esfuerço de se defender, pero finalmente, más no pudiendo, huvieron de render for fuerça, e así tomaron la tierra de Álava e la Ypuzcoa...”*. Behin Gasteiz bereganatuta, Gaztelako ejertzito indartsuek hainbat lurralde, gaztelu eta gotorleku bereganatu zituzten: Araba, Durangaldea, Aitzorrotz, *Ipuskoa* eta San Sebastian-Ernani izendatutako lurraldea *“... obtuvo de aquella manera Vitoria,..., Alava y ‘Guipuzcoa’ con sus plazas y castillos... Tomó San Sebastián, Fuenterrabia, Beloaga* (gaur egungo Oiartzunen kokatutako gaztelua),...”.

Gasteizen eta gainerako lurralde horien konkistak bazituen oinarrian interes ekonomikoak ere. Igarobidea zen, Kantauriko kostaldea Gaztelarekin lotzen zuena. Kostaldean hiribiidu berriak sortuak ziren eta, ondorioz, jarduera komertziala ere abiatzear zegoen. Gaztelak, berriz, bere produktuak Kantauriko portuetatik bideratu nahi



zituen kanpoaldera eta, gainera, arrantza portu horien gaineko kontrola eskuratzeaz gain kostaldeko herri nafar horietan garatzen ari zen ontzigitzaz jabetu zen. Nafarroako galdu egin zuen itsasorako irteera eta horrek ondorio larriak ekarri zizkion Nafar erresumari.

Arlo soazialean ere izan zituen ondorioak konkista horrek, eta baita eremu erlijiosoan ere. Bertako jauntxoak egoera “politiko”az baliatu ziren elizak bereganatzeko, eta saiakera horretan Gaztelako koroaren babesa izan zuten. Patronatu “laiko” moduko bat antolatu zen horrela, familia nobleen eskuetan, gaur egun arte iraun duena<sup>19</sup>.

Konkista horren barne historian zerikusi handia izan zuen gaur egungo Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeetako nobieziak, Alfonso VIII.a Gaztelako erregearen aliatuak izan baitziren. 1180-1181 urteetan hiribildu nafar berriak sortu ziren: Gasteiz eta Donostia, eta sorrera horiek ez ziren nobieziaren gustukoak izan, beraien interesen aurka jotzen zutelako. Noblezia izan zen, beraz, lurraldea Gaztelaren eskuetara pasatzeari onura atera ziona. Horrela lortu zuten nobleek Gaztelako koroaren babesean izen bat hartzea eta nor izatea.

Historiografia tradizionalak mendez mende landu duen tesia izan da borondatezko loturarena, hau da, lurralde horiek beren borondatez egin zutela bat Gaztelako koroarekin. Esteban de Garibay arrasatearrak, Felipe II.a erregeren idazkari eta liburuzain zenak, XVI. mendean honela adierazi zuen: *“Como Guipúzcoa y Álava tornaron a la corona de Castilla... La Provincia de Guipúzcoa deseando tornar a la unión... de la corona de Castilla, trato sus negocios y formas de asiento, con el Rey don Alonso, al qual, pidiendo que en persona entrasse en ella, lo hizo assi”*.

Konkistaren izaera militarra eta bortitza ezkutatu eta “borondatez” egindako bateratze bat bailitzan ezagutarazi zaigu. Eta ez da egia. Garai hartan Gipuzkoa ez zen existitzen, beraz, ez bere izenean ez eta gipuzkoarren izenean ere sinatu zitekeen ezer, ez baitzegoen horretarako entitaterik. Noren izenean sinatu, beraz, “borondatezko bateratze” hura? Existitzen zen aginte bakarra Nafarroako errege-erreginak ziren eta beraien mende zeuden Gaztelak hartutako lurralde horiek denak. Gainera, ez dago inolako frogarik halako itun bat egin izanarena. Badira frogak, ordea, lurralde horiek Gaztelako Koroak indarrez hartu zituela egiaztatzen dutenak.

Idoia Arrieta historialariak ordurarte ezkutuan egon zen dokumentu baten berri eman zuen. *Colección de Documentos Medievales de las villas Guipuzcoanas* lana kontsultatzen ari zeia, honako erreferentzia hau aurkitu zuen: *Traslado del fuero de San Sebastián sacado a petición del concejo de la villa de Guetaria*. Azken dokumentu horren originala aurkitu zuen Madrilgo Historiako Erret Akademian eta haxe da dokumentuaren izenburu originala: *1202-1332 Guetaria SS. Parte del Fuero de S.S. Y en el preambulo se dá por sentada la conquista de S.S.* En Bertan, oin-ohar batean haxe irakur zitekeen: *“ojo, conquista de S.S.”*<sup>20</sup>.

Gasteizen konkistaren berri bagenuen, baina, orain, oin-ohar horri esker, baieztatu dezakegu Gaztelako Alfonso VIII.ak Donostia ere konkistatu egin zuela eta, ondorioz, lurralde horretan Nafarroaren esku zegoen eremua ere bai: *Emari*. Eta baieztatu

19 Horregatik XVII. mende erdialdean Hernaniko Udalbatzak Espainiako erregeari “mesedea” eskatzen dio parrokiako altxaren patronatua eman diezaiola, orduan eskuan zuen “... Don / Joseph de Ynssausti por su bida y otra quen son dos bidas...” (HUA / AMH / /E-4-II-2/3).

20 Arrieta, Idoia: Donostiaren konkista agiri eskutuaren aurkezpena: ikerketaren ibilbidea eta ekarpen historiko-kritikoa. 1512 Euskal lurraldeak eta Nafar Estatua / Los territorios vascos y el Estado navarro. Txertoa. Donostia-San Sebastián, 2011.

dezakegu, halaber, lur hauek bortizki lapurtuak izan zirela eta mende askotan saiatu direla, eta lortu ere bai, egia hori ezkututzen: “*ojo conquista de S.S.*”. Ezkutatu egin dute, dena borondatez gertatu zelako tesia gainjarritz.

Historiografia tradizionalari jarraituz, 1200. urtetik aurrera hasi ziren errege gaztelarrak hiribilduak sortzen, erege nafarrek lehendik sortutako gainean batzuk, gaur egungo Araba eta Gipuzkoako lurretan; testuinguru horretan kokatzen da Hernaniren sorrera, XIII. mendearen erdialdera. Baieztapen hori ziurtatzeko, hainbat hipotesi azaleratu dira, zeinak, dokumentalki frogatu gabeak diren arren, baieztatzen duten Hernani Gaztelako koroaren mendeko lurraldean zegoela, Nafarroako erresumarekin muga egiten zuela eta Alfonso X.a Jakitunak sortu zuela. Garai horretan sortu ziren beste hiribildu batzuk ere: Segura, Tolosa,...Baina, Hernani existitzen zen sorrera horren aurretik ere, Gaztelak 1200. urtean konkistatu aurretik, alegia (horren inguruko erreferentziak eman ditugu). Zer gertatu zen, beraz, XIII. mende horretan? Gaztelatik Kantaurirako bide horretan kokatutako herri edo hiriek, Hernani tarteko, hesiz inguratu eta gotortu egin zituela Gaztelak. “sorrera berri” horien helburua, beraz, estrategikoa zen: lurraldea kontrolatu ondoren, Nafarroako Erresuma konkistatzea; konkista, dakigun bezala, 300 urte beranduago gertatu zen, 1512an.

**Une honetatik aurrera, ez dago gehiago gaur egun Gipuzkoa den lurralde eta lekuak Nafarroarekin lotzen dituen erreferentziarik; erreferentzia horiek desagertu egin ziren. 1200. urte arte erreferentzia guztiak Nafarroako estatu independentearen ingurukoak dira, Nafarroako Erresumaren ingurukoak; handik aurrera, ordea, Gaztelako Erresuma da erreferentzia. Gaur egun arte onartu egin da “orientazio” historiko berria inolako azalpenik eman gabe, 1199-1200 urteetan gertatutakoa ahaztuz eta ezkutatuz.**



Arrano beltza, Antso VII. Azkarraren zigilua

Alfonso VIII.ak Diego Lopez de Haro (1170-1214) jauntxoaren esku utzi zuen konkistatu berri ziren lurraldeak gobernatzeko ardura. Lurralde horietan zegoen, besteak beste, Donostiako Mota gaztelua. Durango gobernatzeko ardura ere bereganatu zuen (1212) eta baita Enkarterrietakoa ere, beste lurralde batzuen artean. Horrela eman zitzaion hasiera feudalizazio prozesuari zeinaren amaieran Haroko jaurerriaren menpe geratu baitzen Bizkaia.

♦♦♦♦♦♦♦♦♦♦

“Ber”konkista prozesuarekin jarraituz, 1212an Antso VII.ak, penintsulako beste errege batzuekin batera, **Navas de Tolosa** izeneko gudan parte hartzera

behartu zuen Aita santuak; helburuetako bat hauxe zen: errege kristauen artean prestigioa lortzea, galdutako lurraldeak berreskuratzeko. Guda honetan oinarrituko zen gero Nafarroaren armarriko kateen legenda: *“que son oy en Nabarra et mucho más”*.

Antso VII.a hil zenean, **Teobaldo I.a Trobadoreak** hartu zuen tronua, Tuteran 1234ko apirilaren 7an. Berak eman zion hasiera Champaña dinastiari. Hainbat itun sinatu zituen Gaztela, Aragoi eta Ingalaterrarekin eta horiei esker sendotu zuen koroa.

Nekez betetzen zituen, ordea, nafarren ohitura eta usadioak, eta, ondorioz, jauntxo, infantzoi eta nobleek, Obanosko Infantzoiaren Batzarra eratu zuten eta erregeak Foru Zaharra sinatzea lortu zuten<sup>21</sup>. Foru Zahar horretan jendearen askatasuna erresumaren askatasunari lotzen zitzaion: *“Pro libertate patria, gens libera state”*.

**Teobaldo II.ak** (1253-1270) hartu zuen tronua oinordetzan. Aurrekoak abiatutako bideari jarraitu zion eta Erresumaren administrazioa hobetu zuen. Bere garaikoa da populazioaren lehen errolda (30.000 su edo familia, 150.000 biztanle inguru kontabilizatu ziren). Tunisiaren kontrako VIII. gurutzadan hil zen.

**Enrique I.a** izan zuen ondorengo, urte gutxi batzuk iraun zituen erreinaldian (1270-1274). Haren ondotik etorri zen **Joana I.a** (1274-1305), nahiz eta iehendabiziko urteetan **Blanca de Artois** erreginordeak gobernatu zuen. Handiak dira garai horretan Gaztela, Aragoi eta Frantziako koroen presioak oinordekoaren ezkontza zela medio: azkenean Felipe Ederra oinordeko frantziarrarekin ezkondu zen eta horri esker Frantziako erregina izan zen (1285-1305).

Erregeldiko gertakiririk odoltsuena Nabarrerriako Gerla izan zen (1276)<sup>22</sup>. Gerla horren ondorioz, Iruñeko hiribildua txikituta geratu zen berrogeita hamar urterako.

**Luis I.a** maiorazkoak eman zion hasiera **Capetoarren dinastiari**. Frantziako errege ere izan zen aita hil zenean, Luis X.a izenpean (1314-1316). Luis *le Hutin* (setatia) izan zen Iruñea babesteko gaztelua eraiki zuena, gaur egungo Gaztelu plazan kokatua zegoena.

Haren ondotik etorri ziren **Joan I.a Hilondokoa** (1316-1316), **Felipe II.a Luzea** (1316-1322) eta **Carlos I.a Burusoila** (1322-1328), Nafarroako eta Frantziako errege izan zirenak. Carlos I.a hil zelarik, Frantzian ondoregotza-arazoa sortu zen, Ehun Urteko gerra piztu zuena; Nafarroan, berriz, Lege Saiikoa indarrean ez zegoenez, Luis I.aren alaba zen **Joana II.a** bihurtu zen Nafarroako erregina (1328-1349).

Capetoarrak ez ziren Nafarroan bizi izan eta gobernadoreen esku utzi zuten Erresuma gobernatzeko botere osoa. Foruen zaintzaile sutsuak ez zirenez, protesta ugari jaso zuten.

1321. urtean gaude, elezahar biiakatutako Beotibarko Guda ezagunaren urtean. Izan ez duen garrantzia eman zaio guda horri gipuzkoarren imaginarioan. Gaztelako kronisten arabera, 60.000 nafar! eta 800 gipuzkoar! izan ziren gerlariak. Liskarra, ordea, beste neurri batekoa izango zen, Gaztela-Nafarroaren arteko mugan (gaur egun Gipuzkoako lurraidea dena), Gaztelaren konkistaz geroztik, maiz sortzen ziren gatazken

21 Nafarroako Foru Orokorra edo Foru Zaharra, 1237an idatzita, erregearen eskuduntzak mugatu eta nafar guztien eskubideak bermatzen zituen araudia izan zen.

22 Navarrerian izandako Gerra (1276an) Champagna dinastiak lurralde nafarraren gainean burutu zuen erregimenaren ondorioa da, gehiago zehazki, Iruñeko hiriaren gainean; erregimen honek ez zituen erreinuaren usadio eta ohiturak errespetatzen. Iruñeko burguak izan ziren egiazki era oldarkorragoko tentsioak eta liskarrak pairatu zituztenak; gatazka hauen ondorioz Navarrerria suntsitua izan zen. Gaztela eta Aragoiko Koroak parte hartu zuten ere, monarkia nafarra ahultzeko asmoz.

barnean kokatu beharrekoa. Guda hartan ere parte hartu zuten hernaniarrek: “... y el de 1321 quando fue derrotado Don Ponce de Morentain en / la tierra de Beotibas viniendo a ganar la dicha provincia con / exercito de 60.000 hombres ynbiado por el rey Carlos de / Francia...”<sup>23</sup>.

Zerk eragin zuen liskar hura? Gaizkile talde batek (horrelakoak baziren gaur egun Gipuzkoak eta Nafarroak muga egiten duen lekuan, orduan Gaztelak Nafarroarekin egiten zuena) Gorritiko Gaztelua hartu zuen. Gaztelu hura, Lekunberrikoarekin batera, erabiltzen zuten nafarrek Tolosako eskualdea kontrolatzeko. Zigor modura, Ponce de Morentain gobernadore nafarrak muga aldera jo zuen zonalde hura berreskuratu nahian. Berastegi hartu zuten lehenik eta Tolosa alderaino inguratu ziren. Beotibarrera iristean, ordea, Gil López Oñaz, Larrea etxeko jauntxoak, oinaztarra bera, gerlari nafarrei eraso egin eta garaitu zien.

Gertaera honen testuinguruak baditu berezitasun batzuk. Gaztelak mendebaldeko lurraldeak konkistatu izanak (1200. urteko konkistaren ondotik) liskar txikiak eragin zituen, Gaztelakoek sustatuak, Nafarroako Erresuma independentean egoera estutzeko (Gaztelak ez zuen sekula baztertu Nafarroa inbaditu eta konkistatzea). Liskar hauek bazuten beste elikagai bat ere, hots, mugakide ziren bi zonaldeetako biztanleen artean barrutiak, mendiak eta horrelakoak zirela eta, sortzen ziren disputak. Lurralde horretan, halaber, legez kanpo bizi zen jendea ere ibiltzen zen eta bazen, hainbat arrazoi medio, bertan errefuxiatzen zirenak ere (hortik zetorkion “gaizkileen muga” izena). Bada kontuan izan beharreko beste faktore bat ere: ganboatarren eta oinaztarren arteko zatiketa, zeinak lurralde hartako jendarte osoari eragiten baitzion; Ahaide Nagusiak deiturikoez, Ganboa eta Oinaz etxeen lidergopean, beren legea ezartzen zuten lurralde horretan..., eta, badirudi, Beotibarko ekintza oinaztarren bandoaren ekimena izan zela. Gaztelaren alde eta Nafarroako koroaren aurka egiten zuten oinaztarrek.

Orduz geroztik, Beotibarko gudaren oroimenean, ekainaren 24an, San Joan egunez, “Bordondantza” egiten da Tolosan<sup>24</sup>. Ospakizun horrek badu antzekotasunik Irun eta Hondarribiko alardeekin. Zuen baina garrantzi handiagoa eman zaio Beotibarko gudari eta, gainera, euskaldunen arteko zatiketa eta liskar moduan ospatu izan da.

Nabarraldeak antolatutako Nafarroako historialarien II. Kongresuan (Oñati, 2011ko irailak 16-18) Floren Aoizek hitz egin zuen gai horiei buruz<sup>25</sup>, eta berak zioenez, nabarmena da Nafarroako Erresumaren konkistari buruz zer nolako ikuspegi okerra ematen hasi ziren 1512ko konkistaren ondotik. Juan Antonio Urbeltz, era berean, arma alardeei eta haien inguruko metaforei buruz aritu zen<sup>26</sup>.



23 HUA / AMH / /E-4-II-2/3. Esan dugun moduan, dokumentu honek pasarte-erlazio bat edo gazteiar-espainiar koroaren alde Hernanik eginiko “mesedeak” aurkezten ditu; erlazioa ez beti zehatza eta anakronismo eta gezurrezko datu askorekin.

Beotibarrek “elezaharrak” XVI. mende bukaera aldean du bere jatorria, Garibay eta Espainiako monarkiaren zerbitzura zeuden beste historialarien kronikekin; eta Nafar Erresumaren aurkako, kanpotar eta erasotzaile bezala aurkezten duena, irudizko kolektibo gipuzkoarra sortzeko balio izan du.

24 Larramendik “Corografía de Guipúzcoa” liburuan esaten zuen bezala Bordondantza, lehen Alagaidantza bezala ezaguna, Andoainen, Hernanin, Urnietan edo Erreterian ere dantzatzen zen.

25 Aolz, Floren: Beotibarko bataila, historiografia eta mitoak. 1512 Euskal lurraldeak eta Nafar Estatua / Los territorios vascos y el Estado navarro. Txertoa. Donostia-San Sebastián, 2011.

26 Urbeltz, Juan A.: Los alardes de armas y sus metáforas. 1512 Euskal lurraldeak eta Nafar Estatua / Los territorios vascos y el Estado navarro. Txertoa. Donostia-San Sebastián, 2011.



Joana II.a Évreux-eko Feliperekin ezkontuta, Nafarroako Koroak dinastia berri bati eman zion hasiera: **Évreux-eko etxea**. Erreinaldi horretan foru-legaia hobetu egin zen eta gobernu organo berriak sortu ziren: Errege Kontseilua, batetik, erregearekin lankidetzan aritu zena legegintzan eta epaigintzan, eta Kontuetako Ganbera, zergen bilketaz eta errege- ogasunaz arduratzen zena, bestetik.

**Karlos II.a** (1349-1387) izan zen haren ondorengoa. Nazioarteko politika irmoa garatu zuen, Erresumaren baliabide mugatuen gaintik. Erreinaldi honetan ejertzito gaztelarrak iruñea inguratu zuen. Ondorioz, Brionesko Ituna sinatu behar izan zuen (1373): Gaztelak bere esku izan zituen ia hamar urtez, militarki eskuratutako lurralde nafarrak. Karlos II.ak handinahi politikoak alde batera utzi behar izan zituen eta Nafarroaren inguruko potentziekiko orekari eutsi. Hor ziren Gaztela, Aragoi, Frantzia eta Ingalaterra (Akitaniaren jabe azken hau), denak Nafarroako Erresuma noiz hartuko menpean.

**Karlos III.a** Noblea (1387-1425) Trastamaratar Leonorrekin ezkondu zen 1375ean. Leonor Gaztelako Enrike II.aren alaba zen. Ezkontza horrek eman zien amaiera bi erresumen arteko liskarrei. Aragoi, Frantzia eta Ingalaterrarekiko harremanak ere goxatzen saiatu zen. 1423an Bianako Printzea izeneko titulua sortu zuen nafar erregeen oinordekoentzat.

Iruñeko katedral gotikoaren eraikuntza amaitu zuen eta Tafalla eta Erriberriko errege- jauregiak eraikitzeko agindua eman zuen. Erriberrin hil zen 1425ean. Iruñearen batasuna zor zaio berari eta hiriko burguen arteko liskarrak baretzea lortu zuen.

Bere alaba **Blanca I.a** izan zuen oinordeko (1425-1446). Martin Gaztea izenekoarekin ezkondu zen 1402an. Martin Gaztea Siziliako erregea eta Aragoiko Koroaren oinordekoa zen. Berau hil zelarik, 1409an, Nafarroara itzuli zen eta Aragoiko Juan II.arekin ezkondu zen. Ezkontza horretatik jaio zen Karlos (1421-1461), Bianako I. Printzea eta Nafarroako Koroaren oinordeko. Blanca erregina hil zelarik, ordean, **Juan II.a Usurpatzaileak**, alargunak, (1446-1479) errege izendatu zuen bere burua adieraziz, erreginaren testamentuak zera zioela, oinordekoak ezin zuela errege izan aitarien oniritzirik gabe.

Bianako Karlosek gerra deklaratu zion aitari eta, ondorioz, Nafarroa guda zibilean murgildu zen, Karlosen eta Juan II.aren heriotzen ondotik ere (1461 eta 1478 hurrenez hurren) jarraitu zuen gerra zibilean.

Juan II.ak Karlos semea, Bianako Printzea, oinordegabetu zuenean eta Blanca alabak lur jo, erresumaren oinordeko izendatu zituen **Foix-eko Leonor** (1479) eta Foix-eko Gaston IV.a, zeinak 1441ean ezkondu baitziren. Foix-eko dinastiaren hasiera zen. Leonorrek bere testamentuan adierazi zuenez, **Foix-eko Francisco I.a** biloba (1479-1483) izendatu zuen oinordeko. Erreginordetza Frantziako Madalenak, Francisco I.aren ama eta Frantziako Luis XI.aren arreba egin zuen.

Francisco Febo gazterik hil baitzen oso, 1483an, haren arreba **Foix-eko Katalina** bihurtu zen Nafarroako erregina (1483-1517). Katalina norekin ezkondu erabakitzeko orduan berriro piztu ziren presio diplomatiko frantziarrak eta gaztelar-aragoiakoak. Azkenean Albretako Joanekin ezkondu zen (Labriteko Joan III.a, 1483-1516), zeinak Frantziako erregearen oniritzia baitzuen.

**Gaztelaren inbasioa eta erresumaren zatiketa.** Hainbat urte lehenago Beaumontar eta Agaramontarren artean sinatutako Agoizko bakea iragankorra izan zen

eta, gerra zibila nola hasi zen inork gogoratzen ez zuen arren (hilda zeuden dagoeneko Juan II.a eta Karlos, bere seme Bianako Printzea), bere fase odoltsuenetakoa zegoen: soro eta hiribildu suntsituak, sabotajeak, herrixken erreketak, lapurretak, krimenak... Egoera hori baliatuta, Fernando Katolikoak erresumaren eta errege-erreginaren aurkako jazarpena areagotu egin zuen. Beaumontarrak, Luis Beaumontekoa Leringo Kondea, Nafarroako Kondestablea buru zutela, Gaztelarregandik gertu ibiltzen ziren; Agaramontarrak, Joan Jasokoa Xabierko Jauna eta "Pedro Nafarroakoa" Mariskala kasu, Nafarroako koroari fidelak zitzairen.

Joan Albretekoa erregearen eta Luis Beaumontekoa Leringo Kondearen arteko liskarrak Kondearen ondasun guztien bahitura eragin zuen. Gaztelara deserriratu zuten, eta bertan, Fernando Katolikoaren babespean, saritu egin zuten; hala ere, Leringoak Nafarroako erregeari aurre egiten eta jazartzen jarraitu zuen.

Politikoki, Nafarroa nazioarteko oreka zailaren erdian kokatzeaz zen: Liga Santuak (Egoitza Santua, Gaztela eta Ingalaterra) gerra deklaratu zion Frantziari, haren bitartez monarka interesdunek Pirinioetako pasabideen kontrola lortu nahi baitzuten. Erresuma zaharraren etorkizuna zegoen jokoan, eta Nafarroa oso egoera ahulean zegoen 1512. urte hasieran, militarki zein diplomatikoki: Gaztela eta Ingalaterraren artean sinatutako aliantzak (1512ko otsailean), Frantziari aurre egitea ez ezik, Nafarroa Gaztelaren mende jartzeko asmoa ere bazuen.

Gaztelak Lizarra, Donibane-Garazi eta Amaiurko gazteluak bere egitearen truke (Nafarroa Gaztelako protektoratu izatea ekarriko lukeena) Gaztelak eta Nafarroak Burgosen Erresumak Frantziarekiko zuen aliantza bertan behera uztea negoziatzen zuten bitartean, Gaztela eta Ingalaterrako armadak inbasiorako prestatzen ari ziren. Ingelesak Gipuzkoako kostan zeuden, bertatik Lapurdira joan eta Ehun Urteko Gerran galdutako lurraldeak berreskuratzeko asmoz; Gaztelako armada Gipuzkoako mugan elkartu zen, gipuzkoarrek eta bizkaitarrek lagunduta (1512ko udaberrian, Fernando Katolikoak lurralde horietako Batzar Nagusiei agindu zien Gaztela eta Nafarroaren arteko mugara eramateko artilleria-piezak, armak, munizioa... eta Gasteiz haragiz, ardoz, gariz, oloz... hornitzeko ere agindu zuen, Gaztelako armadak aurki iritsiko zirela eta).

1512ko apirilaren amaieratik, ordezkari nafarrak Frantziarekin Bloiseko Ituna bezala ezagutzen dena ari ziren negoziatzen, eta azkenean 1512ko uztailaren 18an sinatu zen: Frantzia eta Nafarroako Erresumaren arteko ez erasotzeko ituna zen, eta, bien etsaiaren aurrean behar izanez gero, eikarri laguntzeko<sup>27</sup>. Fernando Katolikoak, Ingalaterrarekin eta Egoitza Santuarekin aliatuta, Nafarroako inbasioa argudiatzeko aitzakia aurkitu zuen: Nafarroako errege-erreginek Frantziako erregearekin sinatu zuten Bloiseko Ituna eta, beraz, Nafarroa estatu beligerante eta ez neutral bihurtu zen Gaztela eta Ingalaterra Frantziaren aurka egiten ari ziren gerran. Fernando Katolikoak, gainera, Julio II. Aita

27 Bloiseko Itunaren inguruan polemika dago bere egiazkotasunari buruzko bertsio ezberdinen artean. Bertsio espainolistak dio Nafarroako erresumaren ohiko neutraltasuna ezbaian jarri zela Joan III. Albretekoa Nafarroako erregeak bi herrialdeen arteko lankidetzaz aliantza sinatu zuenean Frantziarekin, 1512ko uztailaren 12an. Fernando Katolikoak berehala, Frantziaren aurkako gerran ari zen Ingalaterrako monarkiarekin batera, aliantza hori "casus belli"tzat jo zuen... eta Nafarroako inbasioa agindu zuen.

Baina, hala ere, 1512ko uztailaren 18an sinatu zuten ituna Joan III. Albretekoak eta Frantziako Luis XII.ak eta, jakina, Frantzia eta Nafarroaren arteko aliantza zen, baina ordurako inbasioa hasita zegoen, 1512ko uztailaren 10ean Gaztelako armadak Goizueta hartua baitzuten.

Erreala edo irudizkoa (bertsio bakoitza egia izan ala ez), itun hori aitzakia baino ez zen izan, desitxuratua eta manipulaturia, Nafarroaren inbasio eta konkistari ekiteko: Gaztelak Nafarroa mendean hartzeko nahia aspalditik zetorren, eta berau hartzeko prestaketa lanak abian ziren hilabete batzuk lehenagotik.

santuak Nafarroako Errege-erreginak eskumikatzea lortu zuen<sup>28</sup>, Nafarroako errege-etxeak Frantzia hegoaldean zabaltzen ari zen protestantismoarekin zituen loturak eta Frantziako monarkarekiko aliantza argudiatuta, azken hori zismatikotzat jo baitzuten Letrango V. Kontzilioan. Hala, Nafarroako Errege-erreginak Erresumarik gabe gelditu ziren.

1512ko uztailaren 17an, Fernando Katolikoak Fadrique Alvarez de Toledo Albako Dukeari Gasteiztik ateratzeko agindua eman zion, Aguraingo bidea jarraituta, Nafarroan sar zedin. Uztailaren 19an, oinezko 3.000 gizon eta Gipuzkoan errekrutatutako 400 lantzari<sup>29</sup> bildu zitzaizkion han zegoen taldeari, eta Arabako 1.000 gizon eta Bizkaiko beste 2.000 ondoren; ekialdetik ere, Aragoitik, 3.000 infante eta 400 zaldun sartu ziren Nafarroara. Nafarroan, Fernando Katolikoak beaumontarren sostengua zuen.

Etxarri Aranatz, Huarte Arakil... hartu ondoren, Gaztelako armada, Luis Beaumont aurretik zutela, Iruñean sartu zen 1512ko uztailaren 25ean; Joan Albretekoak eta Katalina Foixekoak hiriburua utzi zuten, Biarnora bidean.

Beste herri batzuetan, erresistentzia handiagoa izan zen: Irunberrik abuztuaren 10era arte eutsi zion; Lizarra abuztuaren erori zen; Erronkari, irailaren 9an; Tuteran, agaramontarren gotorleku nagusia, irailean hartu zuten, eta bertan Aragoiko osteek hartu behar izan zuten parte.

Gaztelako kronikek kontatu zuten Iruñea erresistentzia handirik gabe eman zuela amore, indar militarren harremana Gaztelakoen eta bere aliatuen oso aldekoa baitzen: *"Horrela eginez, denbora gutxian eta minik gabe..."*. Kapitulazio baldintzek hiriburuaren, Iruñearen, interesak zaindu zituzten, baita bertako agintari eta buruzagienak ere, hainbat baldintzari eustea aurreikusita: *"pibilegioak, zabaltasunak eta askatasunak, ohoreak, proeminentziak, eskumenak, azokak, salbuespenak, hiriaren usu eta ohiturak, kontuan hartu eta zaindu egingo dira, kontrakorik agindu ezean, aipatu hiria beti izanda Nafarroako erresumako buru, eta bere egoera batere aldatu gabe"*. Egiatan, herritarrak lasaitzea eta bando beaumontarra eta gaztelarra Joan Albretekoari leial zitzaion klase agintariarengana erakartzea zuten helburu; azken batean, konkistaren eraginak apaldu nahi zituzten.

1513an, Nafarroako Gorteek, Iruñean Gaztelako erregeordeak deituta eta soilik beaumontarrak zeudela bilduta, Fernando Katolikoa izendatu zuten Nafarroako Errege<sup>30</sup>. 1515eko uztailaren 7an, Gaztelako Gorteek, Burgosen, nafarrak ez zegoela, Nafarroako Erresuma Gaztelakoarekin anexionatu zuten.

Gipuzkoa eta bertako herri askok paper garrantzitsua izan zuten Nafarroako Erresumaren konkistan, herrialde hori erabili baitzuen Gaztelako armadak hornitzeko base logistiko gisa. Kontingente armatuek ere zuzenean parte hartu zuten; badugu Gipuzkoako herri eta leinu-gizonen berri, Nafarroako lurretara tropak bidali zituztenak<sup>31</sup> (ez dakigu Hernanik ere egin ote zuen).


28 *Exigir Contumacium eta Pastor Ille Caelestis* buldak.

29 Isasti, Lope de: *Compendio historial de Guipuzcoa*. Donostia, 1850.

30 Abasolo López, Patxi: *¿Por qué dicen Navarra cuando quieren decir España?* (GARA, 2012-03-25). "... [lo que] aquella facción beamontesa colaboradora con la invasión tuvo que experimentar en la primeras Cortes de Navarra celebradas tras la conquista, en marzo de 1513. Convocados por el virrey español, en nombre de Fernando II de Aragón y bajo dos grandes escudos con las armas de este, reconocieron la nueva autoridad española. No obstante aquellos navarros seguían teniendo conciencia de tales, y se atrevieron a solicitar la reunificación de todos los territorios navarros conquistados durante los últimos trescientos años por Castilla. En vano, evidentemente. Como respondió el Duque de Alba a los representantes de la ciudad de Iruñea aquel aciago día 25 de julio de 1512, 'no son los vencidos quienes imponen las leyes a los vencedores, sino que las reciben de estos'..."

31 Rekondo, Jose Antonio: *Tolosa en la conquista de Navarra, en 1512 Los territorios vascos y el Estado navarro*, Txertoa, 2011.





Gipuzkoako armariaren irudia, lurraldeko Batzar Nagusiek 1979an onartutako aldaketa baino lehen.

Joan III. Albretakoa eta Katalina Foixekoa, Enrike II.a eta Nafarroako hiritarrak erresuma berreskuratzen saiatu ziren, jatorrizko independentziara eta burujabetzara itzultzeko helburuarekin.

1512ko azaroan, nafarrak (agaramontarrak eta "frantsesak", mertzenario taldeekin batera) altxatu egin ziren eta erresuma berriz hartzen saiatu, Joan Albretakoa eta La Palice jenerala buru zituzten 15.000 gizonekin. Hainbat hiri altxatu ziren, hala nola Lizarra, Villamayor

de Monjardín, Tafalla... Eta Iruñea ere setiatu zuten azaroaren 3tik 30era Gaztelako errefortzuak iritsiko zirela eta, eraso egin zen, presaz, azaroaren 27an. Porrot egin zuen. Negua hurbil zegoenez, Nafarroako tropek Baztan alderako ihesari ekin zioten. Belateko mendatean Gaztelako tropek atzeguardia harrapatu zuten, Lopez Aiarakoaren agindupekoa eta nagusiki gipuzkoarrez osatuta zegoena. Belateko liskarraren porrotarekin eta frantses-nafarren hamabi artilleria-piezaren galerarekin<sup>32</sup> amaitu zen. Kanoi horiek Gipuzkoako armarian azaltzen ziren orain gutxi arte, duela 30 urte ingurura arte, Gaztelako Joana Eroa erreginak 1513an emandako pribilegioari esker<sup>33</sup>.

Nafarroako Erresuma berreskuratzeko lehen saiakera horren testuinguruan gertatu zen 1512ko azaroan Gipuzkoako lurraldearen "inbasioa" "frantziar" armadaren aldetik; helburua Fernando Katolikoak Iruñeko setiatuei laguntzeko tropak bidaltzea saihestea baino ez zen (ordurako Gipuzkoako portuetan kokatuta zeuden Ingalaterrako tropak euren herrialderantz abiatuak ziren). Hondarribia hartzeko lehen saiakeran porrot egin zuten eta Donostiarantz abiatu ziren, hiria bakartzeko asmoz. Une hartan, hainbat hiri eta herri zeharkatu zituzten, hala nola Irun, Erreterria... eta Hernani, bidean topatzen zuten guztia sarraskituz eta errez:

*"... el año / que pasó de mill e quinientos y doze años, esa dicha villa fue / quemada y robada y destruyda por el egerçito del rey / de França..."*<sup>34</sup>.

*"... y en particular el año de / 1512 quando entro el exercito de Francia en los reinos de Nauarra y dicha / probincia de Eguipuzcoa (sic) acudio con toda su gente a su defenssa por / cuya caussa fue saqueada y quemada en dicha ocasión..."*<sup>35</sup>.

32 Antza denez, milizia gipuzkoarrek kanoiak Iruñera garraiatzeko erraztasunak eman baino ez zuten egin.

33 1979an, Gipuzkoako Batzar Nagusiek lurraldeko armari tradizionalean azaltzen ziren armak moldatu zituzten, bi dibisio kenduta: tronuan eserita errege bat agertzen zuena (Gaztelako Alfontso VIII.a izan daitekeena, 1200ean gaur Gipuzkoa den Nafarroako lur zatia konkistatu zuena) eta Belateko hamabi kanoiak agertzen zituen.

34 HUA / AMH // A-6-1/1.

35 HUA / AMH // E-4-II-2/3. Hiribildua berreraikitzeko "debido a la quema y destrucción que sufrió a cargo del ejército francés" laguntza eskatu zion Gorteari "... merced en re/compensa de los inmensos daños que los franceses les avian fecho en esta / villa de Hernani y sus comarcas..." (HUA / AMH // C-7-IV-1/1).



Erresuma berreskuratzeko bigarren saiakera 1516an egin zen, Fernando Katolikoaren heriotza eta Gaztelako ondorengotza zaila baliatuta. Nafarroako armadak, Piarres Nafarroakoa mariskala buru zuela, porrota izan zuen Erronkarin; mariskala preso hartu zuten eta Simancaseko gazteluan erail zuten 1522an. Orduantxe agindu zuen Cisneros Kardinalak, Gaztelako Erregeordeak, Nafarroako gaztelu eta defentsa-gune guztien suntsiketa, Nafarroako errege-erreginak itzuliz gero, Gaztelako armadak ezingo baitzituen erresumako gune estrategikoak defendatu. Hiribildu eta burgu harresituak suntsitzeko ere agindu zuen.


Bide militarrek arrakastarik izan ez zuenez, diplomatikoarekin egin zen saiakera: aldean arteko bi bilkura egin ziren, Noyonen (1516) eta Montpellierran (1519), arrakastarik gabe. Halaxe iritsi zen Erresuma berreskuratzeko azken saiakera.


1521ean, Gaztela suntsitzen ari zen Komunitateen Gerra aprobetxatuz, Enrike II.a errege zela, Frantziako Frantzisko I.aren baldintzarik gabeko sostenguarekin, altxamendu orokorra izan zen Nafarroa osoan, baita hiri beaumontarretan ere. Frantses-nafar armadak Nafarroa birkonkistatzea lortu zuen. Baina, Gaztelako errebolta komuneroa mendearen hartu ondoren, Gaztelako armada berrantolatu egin zen eta, azkenean, Enrike II.a Nafarroako erregea Iruñera heltzea eragotzi zuen.

Armaden arteko borroka Noaingo Gerra odoltsuan izan zen (1521eko ekainaren 30ean, eta bertan, gutxienez, 5.000 borrokalarik galdu zuten bizia. Porrot horren ondoren, armada frantses-nafarraren zati bat sakabanatu egin zen, eta 200 bat Amalurko gazteluan gotortu ziren, non 1522ko uztailaren 19ra arte eutsi zioten, baita Hondarribian ere, eta bertan iraun zuten (Frantziako tropen laguntzaz) 1524ko martxoaren 24ra arte<sup>36</sup>.

Carlos I.a konkistaren ondorioak arintzen saiatu zen eta 1523ko abenduan errege-erregina legitimoen aldekoen indultua agindu zuen dekretuz; indultu horretatik kanpo gelditu ziren Nafarroako nobleziako hirurogeita hamar kide. 1524an, Hondarribia hartu ondoren, bigarren indultu bat dekretatu zuen, oraingoan orokorra eta salbuespenik gabea, leialtasun zina emateko baldintzapean.

Orduan amaitu ziren Nafarroako burujabetza berreskuratzeko ahaleginak. Eta erresistentzia hasi zen...





Nafarroako Erresumaren parte ziren lurraldeen konkista 1060 eta 1620 artean.

Nafarroa kontinentalean, 1528an, lurraldearen aldizkako okupazioaren ondoren eta bere defentsa zaila zela eta, Carlos I.ak uztea erabaki zuen. Katalina I.a Nafarroakoa izan zen bertako erregina harik eta 1518an hil zen arte. Errege-erregina ondoren jarraitu zuten **Enrike II.ak** (1517-1555), **Joana III.ak** (1555-1572) eta **Enrike III.ak** (1572-1610). Azken horrekin hasi zen Borboien Dinastia. Horiek guztiek Nafarroako Erresuma Frantziako korotik bereizita mantendu zuten.

**Luis II.aren** (1610-1643), 1620an, Nafarroako Erresuma Frantziako koroaren barruan sartu zen. Nafarroako errege-erreginek eta bertako erakundeek beti utzi nahi izan zuten argi Frantzia eta Nafarroaren arteko bereizketa, eta ondorengo guztiek bi tituluak mantendu zituzten, Frantziako eta Nafarroako errege-erreginak, Frantziako iraultzara arte.

Frantziako Iraultzarekin behin betiko deuseztatu zen Nafarroako Erresuma.

Bien bitartean, Nafarroa penintsularrean erregeorde bat hasi zen gobernua egikaritzen, nahiz eta Erresuma izaerari eutsita; hori bai, Fernando Katolikoaren jabetzei erantsita, eta, beranduago, Carlos I.aren. Itxuraz, eutsi egin zitzaion erakunde nafarrei.

Carlos I.ak, Espainiako erregeak, eskrupulu moralak zituela adierazi zuen Nafarroaren jabetzari zegokionez; konkistan bere aitonaen jokabidea defendatzen bazuen ere, ez zuen argi ikusten erresuma atxikitzea eta bere jabe egitea. Hala, bere testamentuan, bere ondorengo Felipe II.ari Joana Albretekoa oinordekoarekin ezkontzeko iradokitu zion, horrela gai dinastikoa konpontzeko.

Testamentuaz aparteko kodizilo batean, esanbidez adierazi zituen bere zalantzak erresumaren eusteari buruz, eta bere ondorengoari eskatu zion *"para la mayor tranquilidad de nuestra conciencia, haga examinar y acreditar, lo más pronto posible y con sinceridad, si en razón y justicia está obligado a restituir el mencionado reino, o si debe dar por él una compensación a quien corresponda. Lo que fuere hallado y*

*declarado justo, se efectuará, a fin de que mi alma y conciencia queden tranquilas sobre este particular*". Mandatu hau, eta bertako erreparaoak, konpondu barik transmititu ziren bere ondorengoan artean. Felipe III.ak, azkenean, testamentu-betearazleen batzorde bat deitu zuen kontua konpontzeko. Erregeari igorritako txostenean, konkistaren legezkotasun morala baieztatuta, legezko erregeen eskumikuan oinarritua... eta edozein legez kanpokotasunetik igarotako denboraren ondoriozko preskripzioan: "egitate burutuak".

Gaztelak, une hartan gorantz egiten ari zen mundu mailako potentziak, Nafarroa konkistatu izanak bertako klase agintzaileei egin zien mesede: aristokraziak aukera berriak izan zituen gorte berri horretan, eta Gaztelako aristokraziarekin adosturiko ezkontzek, kolonizazio amerikarrak, Espainiak Europan buruturiko gudek... noble eta gizon handi nafar ugari goratu zituzten.

Gainera, beste ondorio batzuen artean, konkistak Nafarroako erakundeek hispanizazioa ekarri zuen, hau da, lurralde nafarraren gaineko kontrol politikoa. Historiografia ofizialistaren arabera Fernando Katolikoak usuak, ohiturak eta Nafarroako Forua ere, hala nola bertako erakunde nagusiak errespetatu bazituen ere, hori gertatu zen Nafarroa espainolizatu ahala, elite nafarrak (1512, 1516 edo 1521 eta gero erbestea hautatu ez zutenak) koroaren eta inperioaren "organigraman" integratzean eta bertan kontrolatuta izatean. Nafarroak erakunde autonomoekin funtzionatu zuen, baina erregeorde batek, Espainiako erregearen zuzeneko ordezkariak, batek gidatuak, gobernu, *regimiento* eta defentsa, *capitán general*, kargu nagusiak egikaritzen zituena.

Era berean, Nafarroako Eliza ere hispanizatu egin zen.

1571n, Iruñeko Erdi Aroko harresien eraispinari ekin zitzaion, eta bertako defentsen berregite orokorrari; barne-gotorleku bat eraiki zen hiriaren okupatzaile inbasoreak bertako biztanle eta hiritarrengandik eurengandik babesteko: Ziudadela.

Urteek aurrera egin ahala, konkista ondoren eta XVIII-XIX. mendeetara arte, Nafarroa erresuma ahaztua eta botere politiko eta ekonomikoko guneetatik gero eta baztertuagoa geratu zen.

**Erresumatik probintziara.** XIX. mende hasierako Napoleonen okupazioak (1808 eta 1813 artean) eten egin zituen ordura arte indarrean egondako Nafarroako Erresumatik iraundako erakundeak, eta gobernazio militar batek ordezkatu zituen.

Baina Erresumaren behin betiko desagertzea I. Gerra Karlistaren (1833-1840) ondorioz iritsi zen. Altxamendu karlistak babes handia izan zuen biztanleria nafarraren artean... 1837ko abuztuan, "matxinatu" nafarrak Iruñean sartu, udala hartu eta hiriaz jabetu ziren. Esparterok fusilamendu eta erbesteratzeekin zapaldu behar izan zuen matxinada. Gerra-kontseiluan zehar, matxinatuei Nafarroaren independentzia nahi izatea egotzi zitzaion.

Azkenean, Marotok, Iparraldeko gudaroste karlisten buruak, eta Esparterok, Isabel II.aren gobernuaren ordezkariak, 1839ko abuztuaren 29an iparraldean I. Gerra Karlistari amaiera eman zion ituna sinatu zuten, Bergarako Besarkada ezagunaz berretsia abuztuaren 31n.

Itun honetan, foruen berezitasunak errespetatzea adostu zen; hala, lehen artikuluan honela dio: *El capitán general, don Baldomero Espartero, recomendará con interés al Gobierno el cumplimiento de su oferta de... concesión o modificación de los fueros*. Konpromiso hori 1839ko Foruen Berrespen Legean geratu zen jasoa, eta bertan



esaten da foruak errespetatuko direla *"sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía..."*, Nafarroari eta euskal probintziei "entzunda"; Erresuma zaharreko indarreko erakundeek onartu eta promulgatzeko agintaritzza nafarrekin adostu gabeko legea.

1837ko Espainiako Konstituzio berria onartzearekin batera, Karlismoaren porrotarekin eta 1839ko Foruen Berrespen Legearekin, gobernu zentralak garaitu moduan tratatzen zuen Nafarroa, eta foruak "batasun konstituzional"era egokitzea behartu zuen. Nafarroarenak soilik ziren legeen edozein egokitzapen edo aldaketa, konstituzioaren arabera, Erresumako erakunde legitimoen eskuduntza zen: Gorteena eta Diputazioarena. Hala ere, Madriletik, hauteskundeak deitu ziren Diputazio Probintzialerako, koroaren gainerako probintzietan bezala, Erresumako lege eta foruei gailenduta.

Honela, 1841ean eta Foruen Aldaketa Legearen bitartez, milurteko Erresumak izateari utzi zion eta Nafarroa Espainiako koroaren beste probintzia bat bihurtu zen. Jatorrizko subiranotasunetik nolabaiteko autonomiari eutsi zion arlo fiskal eta zergetan, esparru zibil, administraziokoan eta udal kudeaketan.

## Ondorioa.

Egun, Nafarroako Erresumaren oroimen historikoaren berreskurapenean buruturiko aurrerapausoa kontuan hartuta, ez dago zalantzarik XI. eta XVI. mendeen artean gertaturikoa konkista bat izan zela. Hori bai, zenbait sektorek jarraitzen dute esaten konkista erresuma zaharrari gertatu ahal zitzaion gauzarik onena izan zela. Eta Gaztelara *"erantsi"* izana justifikatzen du(te) esanez esku-hartzea *"ez zela odoltsua izan"*, hura txikiagotuta eta *"erantsi"* hitza dela egokiena azpimarratuta. *"Nafarroa zatitua"* eta *"nazioarteko politikak erabat ukituta"* aurkezten dute, bereziki nabarmentzen dituzte Fernando Katolikoa *"Nafarroa Gaztelako korora eranstea"* erabakitzea eraman zuten arrazoiak, garaiko testuinguru politikoaren ondorio izan zela esanda. Gainera, argudiatzen dute *"Fernando Katolikoak Nafarroaren nortasuna errespetatuz gobernatu zuela eta bakea lortu zuela erresuman"*, erresuma berreskuratzeko 1516 eta 1521-1522 urteetako saiakerak aipatu gabe, ezta horien ondorioz jazo ziren gertakizun odoltsuak ere (Noaingo Bataila, Amaiur...).

Esaten dute *"Lo que se produjo en 1512 fue una conquista, en cuanto que supuso una intervención armada de las tropas castellanas, dirigidas por el Duque de Alba. Es un hecho indudable, como también lo es que entre las tropas castellanas, por su condición de castellanos, se encontraban alaveses, guipuzcoanos y vizcainos"*. Baina *"la conquista no fue especialmente cruenta"* eta Iruñea *"se rindió"* hiria inguratzen zuen Albako Dukearen gudarostearen aurrean. *"Además, la conquista contó con el apoyo de los beamonteses, a cuya cabeza iba el Conde de Lerín y que se trataba de un partido a que pertenecía parte de la población navarra"* eta *"los reyes titulares de Navarra habían huido a Francia"*. Gaineratzen dute *"... la consecuencia principal de la conquista fue el cambio dinástico"*, errege-erregina aldaketa Fernando Katolikoaren mesederako. *"Los navarros aceptaron el cambio dinástico a cambio de conservar sus fueros, esto es, su propio régimen jurídico: su derecho y sus instituciones"*; Nafarroak *"siguió siendo un reino independiente"* 1515era arte. Urte horretan esaten dute *"Fernando decide incorporar Navarra a Castilla..."*.



Eta bukatzen dute adieraziz *“Es preferible usar el término incorporación porque fue el utilizado por Fernando el Católico”* eta *“...Navarra mantuvo un peculiar estatus de que no gozaba ningún territorio castellano”*<sup>37</sup>.

Esan bezala, egun, gutxik jartzen dute zalantzan konkista; hori bai, argudiatzen dute Erresumaren ahuleziaren ondorio izan zela, nazioarteko abagunearena, eta euskaldunen (nafarren) arteko zatiketa eta gatazka bezala interpretatzen jarraitzen dute; gainera, Nafarroari gertatu ahal zitzaion onena da, koro gaztelau-espainiarraren mende modernizatu egin baitzen...

Nafarroako inbasio eta konkistaren bosgarren mendeurrenaren “oroipen” honetan, “borondatezko” anexio edo konkista “atsegin”aren diskurtsoari kontra egiten jarraitu behar dugu, eta historia isilarazi, desitxuratu edota gezurtatu dituzten bertsioak ezeztatzen, erakunde gisa Nafarroako Erresumaren egiazko eta benetako oroimen historikoa aldarrikatu behar dugu, bertan eratu baitzen euskararen lurraldea, Euskal Herria, Estatu moduan, bere subiranotasun eta independentziaren jabe.

*“Izanak dirau”.*

---

37 Fernández, Ibai: *Navarra a la Castellana*. Noticias de Gipuzkoa, 2012ko urtarilaren 19a.



# Hernani y las conquistas del Reino de Navarra (1200 / 1512)

Neguaeren ostean... ernatu da zuhaitza<sup>1</sup>.

Año 2012, año en que se recordamos el quinto centenario de la invasión y conquista del Reyno de Navarra. Año en que hemos de desmontar el discurso que durante siglos nos han transmitido y en el que debemos dar a conocer lo que la versión oficial ha querido borrar, esto es: que lo ocurrido en 1512 no fue sino una conquista, y no una incorporación o anexión a la corona castellano-española.

Hoy pocos son los que cuestionan la conquista de Navarra en 1512, pero mantienen que fue beneficioso para el territorio: *“a raíz de este suceso, se modernizaron distintas estructuras de nuestra tierra, numerosos navarros asumieron responsabilidades en la Corte, participaron en la gran aventura americana donde destacaron como conquistadores, misioneros, gobernadores, militares, comerciantes,...”*. Defienden lo “positivo” de aquella conquista que supuso su unión jurídica a Castilla y su incorporación política a la monarquía española. Sin embargo, en realidad, lo que supuso fue la desaparición de uno de los reynos más antiguos de Europa.

Ante esta manipulación hemos de recuperar una verdadera memoria histórica, hemos de hacer frente al silencio sobre la realidad de lo ocurrido, hemos de ofrecer la verdadera versión sobre lo acontecido hace ahora cinco siglos. No fue una anexión o incorporación a la corona castellano-española sino una conquista militar que supuso una colonización y una aculturación del territorio, así como la pérdida de soberanía, independencia e identidad del Reyno de Navarra.



*“Don Carlos por la divina clemencia Emperador / senper augusto, rei de Alemania, doña Jhoana / su madre, y el mismo don Carlos por la graçia de Dios / reies de Castilla,... de Navarra,... señores de Vizcaya... Por quanto por parte de vos el conçejo, justia, / regidores de la villa de Hernani, nos fue hecha relación / por vuestra petición diciendo que bien sabíamos cómo **el año / que pasó de mill e quinientos y doze años, esa dicha villa fue / quemada y robada y destruyda por el egerçito del rey / de Françia**, y en el dicho tiempo se avian quemado y perdido / las ordenanças que ese dicha villa tenia confirmadas por / los Reies Catolicos...”*<sup>2</sup>.

Valladolid, 12 de diciembre de 1542. Carlos I (Carlos V de Alemania) otorga a la villa de Hernani unas nuevas ordenanzas municipales<sup>3</sup> (las más antiguas conservadas en el Archivo Municipal) tras así solicitarlo el Concejo ya que las primitivas, confirmadas

1 Titulo del grabado, obra de Nestor Basterrechea, emblema de la plataforma *Nafarroa Bizirik* 1512-2012.

2 HUA / AMH // A-6-1/1. Ordenanzas originales otorgadas por Carlos I a la villa de Hernani. En su exposición se hace notar que las primitivas ordenanzas municipales, confirmadas por los Reyes Católicos, se perdieron con ocasión del saqueo e incendio padecidos por la villa cuando entró en ella el ejército “francés” en 1512. Valladolid, 12 diciembre 1542.

3 Anteriormente, en el año 1332, Hernani había perdido su “carta-puebla” o “fuero” fundacional; concretamente en el contexto de los enfrentamientos entre Parientes Mayores, cuando en la villa se refugiaron “elementos del bando oñacino”. Así lo atestiguaron representantes de la villa en las Junta Generales de la Hermandad de Guipúzcoa, celebradas en el año 1491, ocasión en la que además informaron de que la villa fue pasto del fuego y en consecuencia totalmente asolada.



por los Reyes Católicos, se perdieron *con ocasión del saqueo e incendio padecidos por la villa cuando entró en ella el ejército “francés” en 1512.*

Pero, ¿quiénes fueron realmente los que saquearon e incendiaron la villa de Hernani en 1512? ¿El ejército “francés”? ¿No se trata esta afirmación de un intento de, conquistado el Reyno de Navarra, borrar la existencia del mismo identificando únicamente como “francés” al enemigo de Castilla?

En otro documento conservado en el Archivo Municipal<sup>4</sup> hemos localizado referencias a la **Batalla de Noain** (1521); ocasión en la que hernaniarras y la propia Villa tomaron parte. En varios asientos del documentos leemos: “... *para los peones que fueron al Reyno de Navarra quando la batalla de Noain diez ducados navarros*” o “... *para la gente que fue al Reyno de Navarra quando la batalla de Noain veynte ducados navarros...*”.

Habían pasado doce años de la conquista del Reyno de Navarra (1512) cuando en 1524, se redacta este documento, y todavía los rectores de la villa siguen hablando de hernaniarras que fueron al *Reyno de Navarra quando la batalla de Noain*. Aunque Fernando el Católico había solicitado de las Juntas de Guipúzcoa la colaboración y apoyo a sus planes de invasión y conquista... ¿podrían haber tomado parte hernaniarras, al contrario de lo que históricamente se nos ha transmitido, en la defensa de Reyno, en el intento de recuperación del Reyno?

**Estas y otras muchas interrogantes se van planteando en el curso de las investigaciones que se llevan a cabo en busca de una real, verídica y no manipulada o tergiversada recuperación de la memoria histórica del Reyno de Navarra.**

*“En la villa de Hernani que es en la prouincia de Eguipuzco (sic) dice que / ella y sus vecinos tienen hechos muchos y muy particulares seruiços / a Vuestra Magestad y a los señores reyes sus predecessores en defenssa de la yglesia / y de su Real Corona siendo plaza de armas de la dicha prouincia en todas / las ocassiones que se an ofrecido y **frontera de Francia y aun de Nauarra / mientras se yncorporo aquella de en esta de Vuestra Magestad y en particular el año de / 1512 quando entro el exercito de Francia en los reinos de Nauarra** y dicha / probincia de Eguipuzcoa (sic) acudio con toda su gente a su defenssa por / cuya caussa fue saqueada y quemada en dicha ocasión... por hauer perdido mucha gente / en las dichas ocassiones y reduciendose a pobreza la villa y todos sus / vecinos por hauer echo los dichos serbicios a su costa de 132 años / a esta parte sin los ynnumerables que tiene echos desde la perdi[da] / de Espana en el **discursso de 900 años de esta parte...** en su resturacion no sola/mente acudien[do a l]as conquistas sino a la defenssa de que otras / nazioni no entrassen a ganar la parte que los christianos pos[e]yan como fueron **quando Carlomano yntento entrar en ella / y el de 1321 quando fue derrotado Don Ponce***

<sup>4</sup> HUA / AMH // C-5-IV-1/2. Razón de ingresos obtenidos por la venta de montazgos (pago por transito de ganados) situados en los partidos de Epelsaeza y Aparrain, 1524 – 1527. En los enunciados de diversos asientos se leen referencias a la Batalla de Noain,... Hernani, para hacer frente a la costosa reconstrucción de la villa tras los episodios de 1512, hubo de sacar a la venta y poner en almoneda pública muchos de los bienes patrimoniales que poseía, sobre todo, en los montes del valle de la Urumea.

***de Morentain en / la tierra de Beotibas* viniendo a ganar la dicha probincia con / exercito de 60.000 hombres ynbiado por el rey Carlos de / Francia...”<sup>5</sup>.**

En este documento, fechado en mediados del s. XVII, creemos que concretamente en el año 1644, la villa, con el fin de recibir de Su Majestad, la “merced” del patronato de la iglesia, hace relación de los servicios prestados a Vuestra Magestad y a los señores reyes sus predecesores...

Al hilo de lo en él expuesto, si echamos la mirada 900 años atrás podemos concluir que está hablando de la Batalla de Orreaga / Roncesvalles, de aquella batalla en la que el ejercito de Carlomagno, la retaguardia del mismo, fue derrotado por los vascones en el Alto de Ibañeta, el 15 de agosto de 778; en ella, según el documento, tomaron parte vascones hernaniarras.

Sin embargo, debemos tener en cuenta el contexto en que se redacta dicho documento, hacia 1650, y solicitando del rey de España la merced del patronato de la iglesia parroquial de la villa. Del estudio de él, aún siendo un documento plagado de anacronismos, y hoy podríamos decir, con falta de rigurosidad histórica, podemos confirmar que los hernaniarras del s. XVII (el concejo regidor de la Villa a mediados del s. XVII) conocían los hechos ocurridos en el año 778, en Orreaga; los acaecidos en Beotibar en 1321,... y por supuesto, en 1512 “*quando entro el exercito de Francia en los reinos de Navarra*”.

**Estos son algunos de los documentos que en el Archivo Municipal conservamos al respecto de los intentos de conquista, y conquista, del Reyno de Navarra entre los años 778 y 1512. Pero, como veremos en adelante, no son los únicos que nos dan referencia a las relaciones que Hernani (el valle de Ernani) mantuvo históricamente con el Reyno de Navarra.**

## **Historia del Reyno de Navarra**

**Prehistoria.** En el territorio que sería ocupado por las tribus vasconas, la transición del Paleolítico al Neolítico y a la Edad de Bronce fue lenta y paulatina: entre los años 5000-1000 Antes de Nuestra Era, momento en que comienza la Edad de Hierro, el periodo céltico, son los mismos pobladores, los mismos cazadores y recolectores del Paleolítico los que se transforman en agricultores y ganaderos.

La cultura de aquellos pobladores, que después se denominarán vascones, es hoy llamada preindoeuropea, al igual que su [idioma, el euskara, que sobrevivió a aquella civilización desaparecida tras las invasiones célticas, y al desarrollo posterior de las civilizaciones clásicas griega y romana.

5 HUA / AMH / /E-4-II-2/3. Documentos referentes al Patronato de la Iglesia Parroquial de Hernani y a las gestiones realizadas por la villa para ser favorecida con la merced del mismo, que dieron por resultado le fuese otorgado por el término de doce años... En los memoriales elevados para apoyar esas pretensiones, se hace relación de los servicios prestados a S.M. por la villa en diferentes ocasiones..., 1600-1800.

